

ABANTO-ZIERBENA

Euskaldun zaharrik gabeko herria

Meatzaldeko Abanto-Zierbenak kanpotar asko erakarri zuen lanera 60ko hamarkadan.

Bizkaiko herria Kantabriatik bost kilometrora dago, Bilbotik 20ra.

Abanto-Zierbenan, 2001ean, euskaldun zaharrak %0,77 ziren. Orain euskaldunak %22 dira.

ONINTZA IRURETA

LEKEITIO, ONDARROA... herri horien izenak behin baino gehiagotan atera zaizkie Sonia Rodríguezi –Udaleko euskara teknikaria– eta Eneko Urruelari –Euskara, Kirolak eta Jaiak Saileko zinegotzia–. Ez daude enbidiatan, baina badakite beraien abiapuntua bestelakoa dela. Kantabriako muga oso gertu dute, eta esate baterako Lekeitio (%86 euskaldunak), 80 kilometrotara. Abanto-Zierbenako euskaldun kopuru baxua ez da salbuespena Meatzaldean; Muskiz, Ortuella edo Trapagarango egoerak antzekoak dira. 9.000 biztanletik gora dituen herri horrek babesa inguruko herritan dauka. Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako Alkarbide erakundean dago Abanto-Zierbena eta egoera soziolinguistiko bertsuko 10-12 herrirekin batera euskara sustatzeko estrategia bateratua daramate udalen bidez.

2006ko urria arte euskara sustatzen batik bat Axola euskara elkarte eta AEKren Abanto euskaltegia aritzen ziren. Udalak ez zuen euskara zerbitzurik eta Kultura Sailak zuen euskara bultzatzearen ardura. 2006ko urrian sortu zuten Euskara Zerbitzua, euskara teknikari bat kontratatuz.

Nork daki euskaraz herrian?

2001eko datuak pista asko ematen ditu, alegia, %0,77 zela euskaldun zahar. Rodríguez eta Urruela euskaldunaren perfilaren kalkuluak ateratzen hasi dira: eskolako haur txikie-



AXOLA / ABANTO EUSKALTEGIA

Axola euskara elkarteak eta euskaltegiak elkarlanean antolatu ohi ditu ekintza ugari. Horietako bat da argazkikoa. Abanto-Zierbenako gazteak eta helduak elkarrekin iaz egindako bizikleta martxan.

kin hasi eta 40 urteko mugara iritsi dira. Haurrak eta gazteak eskolan ari dira euskaraz, badira 30-40 urte ingurukoak eskolan euskaraz aritu direnak... eta kito. Salbuespena dira beren kasa ikasi duten helduren batzuk eta Urruelari atera zaion bezala, badira “jainkoari eskerrak” oraindik ere euskaraz egiten duten pare bat amona. Helduak ez dira asko animatzen euskara ikastera, euskal tradizioarekiko eta kulturarekiko jarrera estua dute, “jarreratxo” deitzen dio Rodríguezek.

Ikastetxeko bileran estralurtarra

Rodríguez euskara teknikariari ondokoa bururatu zitzaion herriko bost ikastetxeetako ordezkariekin lehen bilera egin zuenean: “Aurreko horiek ariko dira pentsatzen, ‘nondik atera da estralurtar hau?’”. Lau ikastetxe eta institutua daude Abanto-Zierbenan. Duela urte batzuk horietako bakarrak zeukan D eredia. Orain denek dute D eredia, B eredia desagertzean dago eta A eredia bi eskoletan mantentzen da. Euskara teknikaria eta

Rut Martinez Iza Maitasun-gorrotzko harremana euskararekin

Rut Martinez Izak segituan esan digu euskararekin duen harremana maitasun-gorrotzkoa dela. 38 urte ditu, eta euskara ikasten hasi eta utzi, behin baino gehiagotan egin du. Ikastolarik gabeko Gallartan ikasi zuen 14 urtera arte, gaztelaniaz. Institutuan heldu zion euskarari. Unibertsitate ikasketak egin ondoren, Bilboko Lizardi euskaltegian hasi zen berriz euskararekin. Utzi berriz. Haurdun geratu zen eta umearekin euskaraz aritzeko ilusioz berriro heldu zion. Berriz ere utzi... eta orain Abanto-Zierbenako euskaltegian ari da 2. perfila atera nahian, erizaina baita. "Askotan hanka sartzen dut, baina hala ere euskaraz egiten saiatzen naiz". Bost urteko haurrekin, ahizpa eta nebarekin, koinatarekin

egiten du euskaraz. Familiatik kanpo, kalean oso gutxi: herriko umeekin, euskaltegikoekin eta unibertsitateko ikaskide ohiren batekin. Dena den, aitortzen du hizkuntz ohiturek pisu handia dutela eta behin baino gehiagotan eskatu diola kafesnea gaztelaniaz tabernari gazteari, alegia, seguruenik euskara maila gutxienekoa baduenari. "Egunero erabiltzen dut euskara. Gehiago erabili beharko nukeela? Igoal bai, baina ohituraz gaztelaniara jotzen dugu". Berari errudun sentsazioa ageri zaio, hanka sartzen duelako hitz egiterakoan eta behar baino gutxiagotan egiten duelako. Guri berriz meritua duela irudituz zaigu, euskaldunak %22 diren herrian, Kantabriatik hain gertu daudela, egunero euskaraz ari delako.

Abanto euskaltegia

Euskaltegi askok bezala, 1970.eko hamarkadako gau eskolan du sorburua Abanto euskaltegiak. 1983-84an AEKn sartu zen. Rolan González Meatzaldeko AEK-ko eta Abanto euskaltegiko zuzendaria da. Euskaltegiko 80-85 ikasleen perfilaz galdetu diogu eta hiru talde egin dizkigu: lanpostuak eskuratzeko ikasten ari direnak, institututik eta unibertsitatetik doazen gazteak EGA titulua atera nahian eta haurrekin euskaraz gutxieneko komunikazioa izatea nahi duten gurasoak. Euskara ikasteko motibazioen hamarkadako bilakaera labur azaldu du Gonzálezek: "Lehen motibazio nagusia emozionala zen orain funtzionala". Euskaraz aritzeko giroa berotzeko berbalaguna dute, bikoteetan baino taldeetan osatua eta hor behintzat astero euskaraz aritzeko tartea izaten dute.

Axola euskara elkarte

Sergio Monedero 2000. urtean iritsi zen Abanto-Zierbenara eta harrিতuta geratu zen, euskara bultzatzeko zegoen mugimendua nabarmen sumatu zuelako kalean eta euskara entzuten zelako, ez barra-barra, baina bere arreta pizteko adina bai. Bazekien Meatzaldean zegoela, Bizkaiko eremu erdaldunenetakoa. Segituan sartu zen Axola euskara elkarte.

Elkartearen sustraitzat dute 1996an auzo elkarte batean sortutako giroa. Orain, Axolak 175 bazkide ditu eta mota guztietako ekintzak antolatzen ditu euskara suspertze aldera: txangoak, Olentzero, D ereduaren aldeko kanpaina, euskal kanta tradizionalen liburua... Sektoreren bati arreta berezia jartzen dioten galdetu diogu Sergio Monederori, eta baietz, ekimen gehienak txikientzat direla, "lekukoa haiek hartuko baitute".

zinegotzia oso gustura daude eskolekin duten harremanaz. Gogoz heldu diote euskara sustatzeko lanari, bai eskola orduetan eta baita eskola orduz kanpoko hurgazteen astialdian ere. Hasierako bileretako aurpegi harrituak atzean geratu dira.

Ikastetxeekin ez ezik, herrian euskara sustatzen duten eta sustatzeko egokiak diren esparruak batzen dituzte Euskararen Aholku Batzordean. Hor biltzen dira aisialdiko taldeak, ikastetxeak, Abanto euskaltegia, Axola euskara elkarte,

kirol eremuko taldeak, euskara teknikaria eta zinegotzia.

Ondarroari eta Lekeitiori begira hasiz gero, euskara dakiten eta erabiltzen duten herritarren kopurua oso xumea da Meatzaldeko herri horretan. Etorkizuna ez dute beltz ikusten ordea, Rodríguezek eta Urruelak. Alderantziz, behetik hasi direnez, emandako urratsik txikiena ere esanguratsua da, pozgarria.

Hala dio Rodríguez euskara teknikariak: "Belaunaldi berrien zati bat murgiltzen bada gure proiektuan, gu gustura". ■

Babeslea: Errenteriako Euskara Zerbitzua



Errenteriako Udala
euskarazko komunikabideen alde



euskara
zerbitzua
errenteriako udala